

## **Mila zenbaki oso**

*Euskaldunon Egunkaria, 1994-03-01.*

EUSKALDUNON EGUNKARIA sortu genuenetik hiru urte pasa dira, irakurle. Adierazgarria den beste bide bat erabiliaz, gaur eskuetan dugun zenbakiak 1000ko borobila osatzen du. Mila izan daitezke gure historian galdu ditugun gerrak, azken hamar urtetan hondatzen joan zaizkigun baserriak, aurten ere zaizkigun haritzak eta aldatu ditugun pinuak, sartu dizkiguten golak, joan den hilean langabeziaren zuloan erori zaizkigunak.

Mila, zenbaki oso eta borobil gisa erabiltzen da.

Mundua adierazten digu.

Baina gure langabetuak, golak, zuhaitzak, baserriak eta galdutako gerrak historian zehar lehen ere izan ditugunean, EGUNKARIAren zenbakiak bata bestearen atzetik 1000ko gurpil borobila orain burutu du lehen aldiz.

Euskaldun askori esker, berria den zerbait gertatu da zinez herri honen baitan.